

Egunez egun diabetesarekin

Fikloa: 1.a

Gaia: Txangoak eta kanpaldiak

IRAKASLEA

IKASLEAK



www.fundaciondiabetes.org

Ikastetxeak antolatzen dituen irteerak dibertigarriak izaten dira ia beti, eta ekintza bereziak egiten ditugu (leku interesgarriak ezagutu, jolastu, ogitartekoak jan, irakaslea kirola egiteko arropa jantzita ikusi...).

Ongi prestatuz gero, Carolek zuk bezain ongi pasa dezake irteera horietan.

Carolek bere gurasoekin antolatzen du egun berezi hori, zenbat intsulina injektatu behar duen kalkulatu, zer jango duen erabaki, etab.

Baina ezustekoak ere gertatzen dira. Horregatik, dena ongi dagoela ziurtatzeko, maizago neurtu behar duela glukosa esaten diote.

Ez zaitetz harritu zure ikaskidea egun guztian zehar aparatua eskuetan duela ikusten baduzu. Horrek ez du esan nahi gaixeo dagoenik. Glukosa-maila kontrolpean izanez gero, zuk egiten dituzun gauza berak egin ditzake berak ere, eta horregatik darama aparatua eskuetan.

Carolek beti eskueran izan behar ditu:



Glukosa neurtzeko tresna



Odol-tanta bat atera ahal izateko orratza



Intsulina-luma bat



Azukre-koskorrak edo zukua, behar izanez gero hartu ahal izateko